

BESTE BATZUK

7

OTROS

UDALBILTZA PATZUERGOA

Iragarkia

Udalbiltza Partzuergoak Geuretik Sortuak proiektuaren baitan, «sormen, ekoizpen eta hedapen» bekak emateko hasierako onarpena ematea adostu du.

Sormen beka hau Udalbiltza Partzuergoak garatutako proiektu nazional baten parte da: Geuretik Sortuak. Proiektu honek euskal artisten sormena eta euskal herrietako historia eta idiosinkrasia uztartzea du helburu, elkarlan horretatik abiatutako euskarazko artea sortu eta hedatu dadin. 22-25 herrik hartuko dute parte proiektuan –deialdi honetan zehaztuko ez direnak–; eta deialdi honetara aurkeztutako artista eta proposamenen artean 22-25 hautatuko dira, bakoitzak berea ez den herrian egonaldia egiteko. Egonaldi horren ostean sortutako artelanekin, parte hartu duten herri guztiak saretuko dituen aurkezpen zirkuitu bat egingo da.

«SORMEN» BEKAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

Deialdi honen helburua euskal kulturgileei kultur sorkuntzarako bekak eskatzeko eta emateko prozedura arautzea da, horretarako, lehiaketa erregimena ezarri.

Kultur sorkuntza bezala ulertuko da artistaren imajinaziotik eratorritako obra bat, zeina literatura obra, antzerki obra, zinema obra izan daitekeen. Hau da, bekadunak izango diren proiektuek ondorengo izaera izan beharko dute: eleberririk laburra/ipuina, antzerki obra edo film laburra.

Eleberririk laburra edo ipuinak 20 orrialde gutxienez eta 40 gehienez eduki beharko ditu; film laburrak 5 minutu gutxienez eta 20 minutu gehienez iraun beharko du. Eleberririk labur guztiakin, liburu oso bat argitaratuko da ondoren, horretarako 2021ean zehar liburu argitaletxeentzako deialdi bat ere zabalduko du Udalbiltza Partzuergoak. Film labur guztiakin film oso bat ekoiztuko da, horretarako 2021ean zehar film ekoizleentzako deialdi bat ere zabalduko du Udalbiltza Partzuergoak.

Sortze-lan hauen xedea euskarazko artelana sortzea izango da. Horretarako, kulturgileek esleitutako herrietan (beti ere bizi diren herrietatik at) egonaldiak egingo dituzte (3 aste inguru), herri-tarrekin sormen prozesua partekatze eta proiektua landu ahal izateko. Esleitutako herrietan oinarritutako istorioak izatea lehenetsiko da.

Ondoren, antzerki lan guztien emanaldi bana, liburu osoaren aurkezpen bana eta film osoaren aurkezpen bana egingo dira proiektuan parte hartuko duten herri bakoitzean (22-25 herri). Liburu aurkezpenean eta filmaren aurkezpenean, gutxienez sortzaile edo egileren baten parte hartzea bermatuko da aurkezpen

CONSORCIO UDALBILTZA

Anuncio

El Consorcio de Udalbiltza acordó en el ejercicio 2019 aprobar con carácter inicial las bases reguladoras de la concesión de las becas «Creatividad, producción y difusión» del proyecto «Geuretik Sortuak».

Esta beca creativa o de creación forma parte de un proyecto nacional desarrollado por el Consorcio Udalbiltza: «Geuretik Sortuak». Este proyecto pretende fusionar la creatividad de los artistas vascos con la historia y la idiosincrasia de los pueblos vascos, con el objetivo de crear y expandir el arte en euskera a partir de esa colaboración. En el proyecto participarán 22-25 localidades distintas -las cuales no serán especificadas en la presente convocatoria- y se seleccionarán 22-25 artistas y propuestas presentadas a esta convocatoria para realizar una estancia, que será siempre en una localidad distinta a la suya propia. Con las obras de arte creadas tras esta estancia, se realizará un circuito de presentación que unirá en red a todos los pueblos participantes.

BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE BECAS
«CREATIVIDAD»

I. OBJETO

Artículo 1. Objeto.

La presente convocatoria tiene por objeto regular el procedimiento de solicitud y concesión de becas para la creación cultural a los artistas vascos, estableciendo al efecto un régimen de concurrencia competitiva.

Se entenderá como creación cultural una obra derivada de la imaginación del artista, que puede ser una obra de literatura, de teatro o de cine. Es decir, los proyectos becados deberán tener el siguiente carácter: novela corta/cuento, obra teatral o cortometraje.

La novela corta o cuento deberá tener un mínimo de 20 páginas y un máximo de 40; la duración del cortometraje no podrá ser inferior a 5 minutos ni superior a 20 minutos. Después, se publicará un libro completo que agrupará todas las novelas cortas, para lo que el Consorcio Udalbiltza abrirá también una convocatoria para las editoriales de libros a lo largo de 2021. Además, con todos los cortometrajes se producirá también una película completa, para lo que el Consorcio Udalbiltza abrirá una convocatoria para los productores de películas durante el año 2021.

El objetivo de estos trabajos será crear una obra de arte en euskera. Para ello, se realizarán estancias (de alrededor de 3 semanas) en las localidades asignadas a los artistas (siempre fuera de la localidad en la que residen) para compartir con la ciudadanía el proceso creativo y poder trabajar el proyecto. Se priorizará tener historias basadas en los pueblos asignados.

Con todo ello, se realizarán una representación de todas las obras teatrales, una presentación del libro completo y una presentación de la película completa en cada una de las localidades participantes en el proyecto (22-25 localidades). En las presentaciones del libro y de la película se garantizará la participa-

guztietan. Aurkezpen edo emanaldi horietaz aparte, Udalbiltza Partzuergoak aparteko emanaldi eta aurkezpenak eskaini ahal izango ditu deialdi honetan adostutako baldintzetan.

2. artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru-laguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa fin-
katzekoan, oinarri hauek eta diru-laguntzak ematen direnean indarrean diren arauak bete beharko dira:

– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2003-11-18koa).

– Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onartzen duena.

3. artikulua. Onuradunak.

Beka hau, kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor dezakete; betiere Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa-
an erroldatutako sortzaileak badira (gutxienez 2 urte).

Bestalde, sortzaileak norbanakoak edo taldeak izan daitezke. Taldeetan aurkeztuz gero, pertsona bakarra izendatu beharko da taldeko ordezkari bezala.

Horrez gain, eskatzaileak nahitaz egiaztatu beharko du diru-laguntzak eskatzeko datan 16 urteko adina betea izatea.

Onuradunen artean erakunde emaileak emakumeen eta gizonen arteko % 40-60ko oreka egotea bermatuko du, betiere aurkeztutako eskaerek parekidetasun hori bermatzea ahalbidetzen badute; hau da, ahal den heinean aurkeztutako eskaeretatik onuradunen genero parekidetasuna bermatzea erakunde emailearen helburuetako bat izango da. Antzerkigintza eta zinemagintzan zuzendariaren sexuari erreparatuko zaio; eleberrigintzan, ordea, idazlearenari.

Onuradunak ezingo dira ondorengo egoeretan egon:

a) Epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzera kondenatuak izatea.

b) Konkurtsoa aitortzeko eskatua izatea, edozein prozeduratan kaudimengabe aitortuak egotea, konkurtsoan aitortuak egotea –non eta bertan hitzarmen batek efikazia bereganatu ez duen–, interbentzio judicial bati lotuak egotea edo Konkurtsoen Legearen arabera ezgaituak egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako ezgaitasun-epaia bukatuta egon gabe.

c) Administrazioarekin eginiko edozein kontraturen deusztapen irmoa eragin izatea, horren kausaren errudun deklaratuak izan badira.

d) Pertsona fisikoa, merkataritzako sozietateen administrazioaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari diren Nazioaren Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguen interes-gatazkak arautzeko 5/2006 Lege apirilaren 10ekoak eta Administrazio Publikoaren Zerbitzura Lanean ari diren Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Lege abenduaren 26koak araututako kasuetakoren batean egotea, edota Hauteskundearen Erregimen Orokorraren 5/1985 Lege Organiko ekainaren 19koak araututako hauteskundeazko karguetako edozein izatea, lege horretan edo arlo horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako terminoetan.

e) Egunean ez egotea indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantzaren Sozialarekikoak betetze-
ari dagokionez, arauetan ezarritako moduan.

f) Arautegiz paradisurikoa fiskaltzat kalifikaturiko herrialde edo lurralde batean izatea bere egoitza fiskala.

ción de al menos uno de los creadores o autores en todas ellas. Además de estas presentaciones o actuaciones, el Consorcio Udalbiltza podrá ofrecer actuaciones y presentaciones extraordinarias en los términos acordados en esta convocatoria.

Artículo 2. Normativa aplicable.

La concesión de estas subvenciones, así como la relación jurídica que vincule al beneficiario con la entidad concedente, se ajustará a las siguientes bases y a la normativa vigente en el momento de la concesión de las subvenciones:

– Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado de 18-11-2003).

– Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 3. Beneficiarios.

Podrán optar a esta beca las personas físicas que ejerzan o deseen iniciarse en algún ámbito cultural, siempre que sean creadoras empadronadas en los últimos 2 años en Álava, Bizkaia, Gipuzkoa, Alta Navarra, Lapurdi, Baja Navarra y Zuberoa.

Por otra parte, los creadores pueden ser individuos o grupos. En caso de presentarse en grupos, se deberá nombrar a una sola persona como representante del grupo.

Además, la persona solicitante deberá acreditar haber cumplido la edad de 16 años en la fecha de solicitud de las ayudas.

La entidad concedente garantizará un equilibrio entre mujeres y hombres del 40-60 % entre las personas beneficiarias, siempre que las solicitudes presentadas permitan garantizar dicha paridad; es decir, en la medida de lo posible, la igualdad de género de las personas beneficiarias será uno de los objetivos de la entidad concedente. En teatro y cine se atenderá al sexo del director, mientras que en novela se atenderá al del escritor.

Los beneficiarios no podrán encontrarse en las siguientes situaciones:

a) Haber sido condenadas mediante sentencia firme a la pena de pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones o ayudas públicas.

b) Haber solicitado la declaración de concurso, haber sido declarados insolventes en cualquier procedimiento, hallarse declarados en concurso, salvo que en éste haya adquirido la eficacia un convenio, estar sujetos a intervención judicial o haber sido inhabilitados conforme a la Ley Concursal sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.

c) Haber dado lugar, por causa de la que hubiesen sido declarados culpables, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

d) Estar incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de la Ley 5/2006 de 10 de abril, de regulación de los conflictos de intereses de los miembros del Gobierno de la Nación y de los altos cargos de la Administración General del Estado, de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas, o tratarse de cualquiera de los cargos electivos regulados en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, en los términos establecidos en la misma o en la normativa autonómica que regule estas materias.

e) No hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias o frente a la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes, en la forma que se determine reglamentariamente.

f) Tener la residencia fiscal en un país o territorio calificado reglamentariamente como paraíso fiscal.

g) Diru-laguntzak itzuli behar izateagatik sorturiko obligazioen pagamenduan egunera ez egotea arauetan ezarritako terminoetan.

h) Ebazpen irmo baten bitartez diru-laguntzak jasotzeko aukera galtzarekin santzionatua egotea, Diru-laguntzen Lege Orokorraren arabera edo horrela ezartzen duten beste lege batzuen arabera.

i) Sexuzko diskriminazioa egiteagatik santzio administrati-boa edo penala jaso izatea, edo diru-laguntzak eskuratzeko debekuekin santzionaturik egotea, Emakumezkoen eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 Lege otsailaren 18koaren arabera.

j) Jarduera garatzeko behar den baimenean aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik ebazpen irmoz santzionatuak izan diren eskatzaileak.

k) Ezingo dira onuradun izan pertsona fisiko edo juridikoen taldeak, publikoak edo pribatuak, ondasunen erkidegoak edo beste edozein motatako unitate ekonomikoa edo ondare berezia, nahiz eta pertsonalitate juridikorik ez izan, baldin eta hauen baitan pertsonaren batek aurreko bateraezintasunak baditu.

II. ESKAERAK

4. artikulua. *Baztertuak.*

Balioespen batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, diru-laguntza eskaera bat deialditik kanpo uzteko, betiere honako irizpideak kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

Baztertuak izango dira, espresuki:

- Euskaraz ez direnak.
- Euskal Herriko edozein lurraldetan erroldatuta ez daudenak.
- Lanetan hizkera sexista, homofobia edota arrazista erabiltzen dutenak, zuzenean edo beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez.

Era berean, modu orokorrean deialdi honen bidez lagundu-ko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzetako Lege Orokorra- ren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.
- Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo era- kunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion era- kunde edo udal arloa bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

5. artikulua. *Eskabideak aurkeztea.*

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek deialdian zehaztutako ereduaren araberrako eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute.

Eskaera kopurua: Eskatzaile bakoitzari gehienez ere proiektu bakarrerako beka emango zaio.

Eskaerak Partzuergoko erregistro nagusian (Oiartzungo Uda- la, Doneztebe plaza, 1. 20180, Oiartzun) aurkeztu behar dira edo telematikoki aurkezteko, eskariak udalbiltza@udalbiltza.eus pos- ta elektronikora bidali beharko dira.

Aurkeztu beharrekoak:

- * Beka eskaera eskabide-eredu ofizialean aurkeztu behar- ko da (eranskina).
- * Eskaera orriarekin batera agiri orokor hauek aurkeztu beharko dira:
 1. Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiria- ren kopia.

g) No hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones en los términos que reglamentaria- mente se determinen.

h) Haber sido sancionado mediante resolución firme con la pérdida de la posibilidad de obtener subvenciones conforme a la Ley General de Subvenciones u otras leyes que así lo esta- blezcan.

i) Haber sido sancionado administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, o haber sido san- cionado con prohibición de obtener subvenciones públicas, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres.

j) Los solicitantes que por resolución firme hayan sido san- cionadas por el incumplimiento de las condiciones previstas en la autorización precisa para el desarrollo de la actividad.

k) No podrán ser beneficiarias las agrupaciones, públicas o privadas, comunidades de bienes o cualquier otro tipo de unidad económica o patrimonio separado de personas físicas o jurídi- cas, aunque carezcan de personalidad jurídica, siempre que al- guna de ellas presente una de las incompatibilidades anteriores.

II. SOLICITUDES

Artículo 4. *Exclusiones.*

La comisión de valoración será competente, caso por caso, para excluir una solicitud de subvención de la convocatoria, tenien- do en cuenta los siguientes criterios y justificándolo debidamente.

Serán excluidos, expresamente:

- Los trabajos no realizados en euskera.
- Los no empadronados en cualquier territorio de Euskal Herria.
- Los que utilicen un lenguaje sexista, homófobo o xenófo- bo en sus trabajos, directamente o a través de otras personas o entidades.

Asimismo, con carácter general, quedan excluidas del ámbi- to de aplicación de la presente convocatoria las siguientes acti- vidades:

- Se encuentren incursas en alguna de las situaciones pre- vistas en los artículos 13.2 y 13.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Que por su naturaleza y objetivos debieran canalizarse a través de uno o varios programas de otra área u organismo au- tónomo municipal. No obstante, en estos casos, la solicitud se dirigirá al área institucional o municipal correspondiente, infor- mando de ello a la persona interesada.

Artículo 5. *Presentación de solicitudes.*

Quienes deseen optar por estas ayudas deberán cumpli- mentar y presentar el modelo oficial de solicitud según el mode- lo definido en la convocatoria.

Número de solicitudes: a cada solicitante se le concederá una beca para un único proyecto como máximo.

Las solicitudes se presentarán en el registro general del Con- sorcio de Udalbiltza (Ayuntamiento de Oiartzun, Doneztebe plaza 1. Oiartzun 20180). Para su presentación telemática, las solici- tudes deberán enviarse al correo electrónico udalbiltza@udalbil- tza.eus.

Documentación a presentar:

- * La solicitud de beca deberá presentarse en el modelo oficial de solicitud (anexo).
- * El impreso de solicitud deberá ir acompañado de la si- guiente documentación general:
 1. Copia del Documento Nacional de Identidad de la per- sona solicitante y/o representante.

2. Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.

3. Proiektuak hala eskatzen duenean, beharrezkoak izan daitezkeen egilearen eskubideak errespetatuko direla adierazten duen ardurapeko aitortpena.

4. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak betetzeari dagokionez egunera dagoela egiaztatzea.

5. Ardurapeko aitortpena, beste diru-sarrera batzuk badauden eta/edo beste erakunde batzuetan diru-laguntza eskatu duen adierazten duena.

6. Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala bada, gorkio, ardurapeko aitortpena.

* Diruz lagundutako proiektu bakoitzak, gainera, ondorengo dokumentu zehatzak aurkeztu beharko ditu:

– Eleberri motza/ipuina.

Curriculum Vitae-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.

Proiektuaren proposamena azalduko duen laburpena (2 orrialde gehienez).

Lana herrian nola landuko lukeen azaldu eta proiektua herri ezberdinetara egokitzeko gaitasun edota malgutasuna adierazten dituen txosten laburra.

– Antzerkia.

Zuzendariaren, taldearen edota ekipoaren Curriculum Vitae-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.

Proiektuaren proposamena azalduko duen laburpena.

Lana herrian nola landuko lukeen azaldu eta proiektua herri ezberdinetara egokitzeko gaitasun edota malgutasuna adierazten dituen txosten laburra.

Proposamen ekonomikoa: sorkuntza, ekoizpena eta hedapena (emanaldiko «katxeta»).

Aurrekontua eta finantzazio plana. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreraren atalean eskatzen duen bekaren kopurua jarri beharko da.

– Film laburra.

Zuzendariaren, taldearen edota ekipoaren Curriculum Vitae-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.

Proiektuaren proposamena azalduko duen laburpena.

Lana herrian nola landuko lukeen azaldu eta proiektua herri ezberdinetara egokitzeko gaitasun edota malgutasuna adierazten dituen txosten laburra.

Aurrekontua eta finantzazio plana. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreraren atalean eskatzen duen bekaren kopurua jarri beharko da.

* Modu digitalean aurkezten diren dokumentu guztiak (.pdf) formatuan aurkeztu beharko dira.

Aukeratu gabeko lanak itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariak jaso ahal izango dituzte, epaia ezagutzera eman osteko hiru asteetan.

Horrela egin ezean apurtu edo bota egingo dira. Erakunde antolatzailea ez da arduratuko itzultzean galtzen diren lanez edota kopiez.

6. artikulua. *Eskariak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da. Deialdi hori Euskal Autonomia Erkidegoko, Gipuzkoako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan argitaratuko da. Epea argitalpenaren hurrengo egunean zabalduko da, epemuga 2021eko otsailaren 5a izanik, egun hori barne.

2. Documento acreditativo de la titularidad de la cuenta corriente.

3. Declaración responsable de respeto a los derechos del autor que puedan ser necesarios cuando el proyecto así lo requiera.

4. Acreditar estar al corriente con la Administración en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social y con las obligaciones tributarias.

5. Declaración responsable de la existencia de otros ingresos y/o solicitud de subvención en otras entidades.

6. Testimonio, certificado o, en su caso, declaración responsable de que el solicitante no se encuentra en situación de incapacidad para obtener la condición de beneficiario.

* Cada proyecto subvencionado deberá presentar, además, la siguiente documentación específica:

– Novela corta/cuento.

Curriculum Vitae limitado a la experiencia laboral en el ámbito cultural.

Resumen explicativo de la propuesta del proyecto (máximo 2 páginas).

Un breve informe sobre cómo trabajaría la obra en el pueblo y su capacidad y/o flexibilidad para adaptar el proyecto a los diferentes pueblos.

– Teatro.

Curriculum Vitae del grupo, director/a y/o equipo, limitado a la experiencia laboral en el ámbito cultural.

Resumen explicativo de la propuesta del proyecto.

Breve informe sobre cómo trabajaría el trabajo en el pueblo y su capacidad y/o flexibilidad para adaptar el proyecto a los diferentes pueblos.

Propuesta económica: creación, producción y difusión («Caché» de emisión).

Presupuesto y plan de financiación. El presupuesto será equilibrado, es decir, habrá que consignar en el apartado de ingresos la cantidad de beca que solicita.

– Cortometraje.

Curriculum Vitae del grupo, director/a y/o equipo, limitado a la experiencia laboral en el ámbito cultural.

Resumen explicativo de la propuesta del proyecto.

Breve informe sobre cómo trabajaría el trabajo en el pueblo y su capacidad y/o flexibilidad para adaptar el proyecto a los diferentes pueblos.

Presupuesto y plan de financiación. El presupuesto será equilibrado, es decir, habrá que consignar en el apartado de ingresos la cantidad de beca que solicita.

* Todos los documentos que se presenten digitalmente deberán estar en formato (.pdf).

Proyectos no seleccionados se devolverán y podrán ser recogidos por los/las autores/as o personas designadas por los/las mismos/as en el plazo de tres semanas.

Los proyectos que no sean recogidos en este plazo serán destruidos. El Consorcio no se hará responsable de los proyectos que se extravíen durante el proceso de devolución.

Artículo 6. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes se establecerá en la convocatoria. Dicha convocatoria se publicará en los Boletines Oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de Gipuzkoa y de Navarra. El plazo se abrirá el día siguiente al de la publicación, con vencimiento el día 5 de febrero de 2021, inclusive.

7. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, eskatzaileei hamar eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik hasita, aurkitutako hutsak konpon ditzaten. Emandako epea amaitutakoan akats horiek konpondu gabe baleude, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III. BEKA EMATEA

8. artikulua. Aurrekontua.

Diru-laguntza hauek Udalbiltza Partzuergoaren aurrekontu propioetik finantzatu dira. Deialdiak ezarriko du aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura finantzatu diren.

9. artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.

Deialdian aurreikusitako beken zenbatekoa, artelan bakoitzeko, honako hau izango da (BEZ-a eta gainerako zerga guztiak barne):

* Eleberri motz/ipu in idazkera eta aurkezpena.

Idazkera bakoitzeko: 2.500 € eskainiko dira eleberri motz bakoitzaren sormenerako. 2021 amaierarako, beka honen bitartez, 10-15 lan burutuko dira.

– Dietak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak, kopuru horrez gain.

– Ostata eta lekua, ordea, udalek ordainduko dute, diru-laguntzaren kopurutik at.

– Pertsona bakar batzentzako egonaldi gastuak estaliko dira (Beka kopurutik kanpo).

Aurkezpen bakoitzeko: 300 € eskainiko dira aurkezpen bakoitzeko. 22-25 aurkezpen egingo dira 2022an, egile guztien artean. Liburuaren argitaletxearen esku geratuko da aurkezpen hauetako parte-hartzaileen kudeaketa.

– Garraioa (gehienez 0,29 €/km) eta otorduak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.

2021eko udaberrian Udalbiltza Partzuergoak argitaletxe-atarako deialdia argitaratu du eleberri edo ipuin guztiak barnean biltzen dituen liburua editatzeko. Beraz, eginkizun hau, deialdi honetatik kanpo geratzen da.

* Antzerki sorkuntza eta emanaldiak.

Antzerki sorkuntza bakoitzeko (sorkuntza, ekoizpena, zuzendaria, aktoreak, ekipo tekniko/artistikoa): 15.000 €-ra arte eskainiko da obra bakoitzaren sormenerako. 2022aren hasierarako 3-5 lan inguru burutuko dira beka honekin.

– Dietak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.

– Ostatuaren eta lekuaren kostua udalek ordainduko dute, diru-laguntzaren kopurutik at.

– Egonaldiaren gastuak gehienez 7 pertsonarentzat estaliko dira. (Beka kopurutik kanpo).

Emanaldiak: 2.500 €-ra arteko emanaldiak eskainiko dira. 2022rako 22-25 emanaldi burutuko ditu talde bakoitzak.

– Garraioa (gehienez 0,29 €/km) eta otorduak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru honetaz gain.

2021eko udaberrian Udalbiltza Partzuergoak antzerki emanaldietarako teknika alokairuetarako deialdia argitaratu du antzerki emanaldiei begira. Beraz, eginkizun hau, deialdi honetatik kanpo geratzen da.

Artículo 7. Subsanación de errores.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompañe adoleciera de algún defecto o estuviera incompleta, se requerirá a los solicitantes para que, en un plazo de diez días a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación, subsanen los defectos observados. Transcurrido el plazo concedido sin que se haya subsanado, se entenderá que la solicitud ha sido desistida, procediéndose al archivo del procedimiento, previa resolución dictada de conformidad con lo dispuesto en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

III. CONCESIÓN DE LA BECA

Artículo 8. Presupuesto.

Estas subvenciones se financiarán con el presupuesto propio del Consorcio Udalbiltza. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales se financiarán.

Artículo 9. Cuantía de las ayudas.

El importe de las becas por obra previstas en la convocatoria será el siguiente (IVA y todos los demás impuestos incluidos):

* Novela corta/escritura cuento y presentación.

Por cada escritura: se dedicarán 2.500 € para la creatividad de cada novela corta. Mediante esta beca, para finales de 2021, se realizarán 10-15 trabajos.

– Además de esta cantidad, las dietas serán abonadas por el Consorcio Udalbiltza.

– Los gastos de alojamiento serán abonados por los Ayuntamientos, fuera del importe de la subvención.

– Se cubrirán los gastos de estancia para una sola persona (fuera de la cuantía de la beca).

Por presentación: 300 € por presentación. 22-25 presentaciones en 2022 entre todos los autores. La editorial del libro se encargará de la gestión de los participantes en estas presentaciones.

– Los gastos de mantenimiento y transporte (hasta un máximo de 0,29 €/km) correrán a cargo del Consorcio Udalbiltza.

En la primavera de 2021 el Consorcio Udalbiltza publicará una convocatoria específica para las editoriales que editarán un libro que incluya todas las novelas cortas o cuentos. Por tanto, esta función queda excluida de esta convocatoria.

* Creación teatral y funciones de teatro.

Por cada creación teatral (creación, producción, dirección, actores, equipo técnico/artístico): se ofrecerá hasta 15.000 € para la creatividad de cada obra. Para los comienzos del 2022 se llevarán a cabo unos 3-5 trabajos con esta beca.

– Además de esta cantidad, las dietas serán abonadas por el Consorcio Udalbiltza.

– Los gastos de alojamiento serán abonados por los Ayuntamientos, fuera del importe de la subvención.

– Los gastos de estancia se cubrirán para un máximo de 7 personas. (Fuera de la cuantía de la beca).

Por cada función de teatro se ofrecerán 80 becas de hasta 2.500 €. Para 2022, cada grupo realizará 22-25 actuaciones.

– Los gastos de mantenimiento y transporte (hasta un máximo de 0,29 €/km) correrán a cargo del Consorcio Udalbiltza.

En la primavera de 2021 el Consorcio Udalbiltza publicará una convocatoria de alquileres técnicos para representaciones teatrales. Por tanto, esta función queda excluida de esta convocatoria.

* Film laburren ekoizpena eta aurkezpena.

Film laburren ekoizpen bakoitzeko (sorkuntza, ekoizpena, zuzendaria, aktoreak, ekipo tekniko/artistikoa, postprodukzioa): 30.000 €-ra arte eskainiko da obra bakoitzaren ekoizpen osorako. 2021aren amaierarako, beka honen bitartez, 3-5 lan burutuko dira.

– Dietak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.

– Ostatura eta lekua: Udalaren kontura ordainduko dira, berriz diru-laguntzaren kopurutik at.

– Egonaldiaren gastuak idazkera fasean 3 pertsonarentzat gehienez estaliko dira. Filmaketan, ordea, 15entzat. (Beka kopurutik kanpo).

Film laburren aurkezpenak: 300 € eskainiko zaio artista bakoitzari aurkezpen bakoitzeko. 2022rako 22-25 aurkezpen burutuko dira, egile guztien artean. Film osoaren ekoizlearen esku geratuko da aurkezpen hauetako parte-hartzaileen Kudeaketa.

– Garraioa (gehienez 0,29 €/km) eta otorduak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.

2021eko udaberrian Udalbiltza Partzuergoak film ekoizte-txeetarako deialdia argitaratuko du film labur guztiak barnean biltzen dituen filma ekoizteko. Beraz, eginkizun hau, deialdi honetatik kanpo geratzen da.

Diru kopuru hau eman daitekeen gehienezkoa izango da, eta balioespen batzordeak erabakiko du zenbat beka eman eta zenbatekoak.

Edozein kasutan, diru-laguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango –hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuak emaniko laguntza edo diru-laguntza batekin batuta– onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

10. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Programa honen kontura emandako diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

– 2021: Sorkuntzaren eta ekoizpenaren % 40 apirilean eta % 60 azaroan.

– 2022: Hedapenaren % 40 otsailean eta % 60 irailean.

Emandako diru-laguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da, elkarte edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

11. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantziatorik ez balego.

IV. PROZEDURA

12. artikulua. Balorazio irizpideak.

Aurkeztutako proiektuak edo artelana balioztatzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- Proiektuaren kalitate artistikoa (40 puntu).
- Proiektuaren egokitzapen gaitasuna, malgutasuna eta egokitzan zaion herriarekin lantzeko aukera (30 puntu).
- Aurrekontua, finantzazio plana eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (15 puntu).
- Curriculum Vitae-a (15 puntu).

* Producción y presentación de cortometrajes.

Por cada producción de cortometraje (creación, producción, dirección, actores, equipo técnico/artístico, postproducción): se ofrecerá hasta 30.000 € para la producción total de cada obra. A finales de 2021, mediante esta beca se realizarán 3-5 trabajos.

– Además de esta cantidad, las dietas serán abonadas por el Consorcio Udalbiltza.

– Los gastos de alojamiento serán abonados por los Ayuntamientos, fuera del importe de la subvención.

– Los gastos de estancia se cubrirán para un máximo de 3 personas en la fase de redacción. Sin embargo, en la fase de rodaje, se cubrirán para, máximo 15 personas. (Fuera de la cuantía de la beca).

Presentaciones de cortometrajes: 300 € a cada artista por presentación. Para 2022 se realizarán 22-25 presentaciones entre todos los autores. La gestión de los participantes en estas presentaciones recaerá en el productor de toda la película.

– Los gastos de manutención y transporte (hasta un máximo de 0,29 €/km) correrán a cargo del Consorcio Udalbiltza.

En la primavera de 2021 el Consorcio Udalbiltza publicará una convocatoria para las productoras de películas, que se encargarán de la producción de la película que englobará todos los cortometrajes. Por tanto, esta función queda excluida de esta convocatoria.

Esta cantidad será la máxima que podrá concederse, y la comisión de valoración determinará el número e importes de las becas concedidas.

En todo caso, el importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal que, aisladamente o en concurrencia con ayudas o subvenciones de otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, supere el coste de la actividad a desarrollar por el beneficiario.

Artículo 10. Abono de las ayudas.

Las subvenciones concedidas con cargo a este programa se abonarán en dos pagos:

– 2021: 40 % de la creación y producción en marzo y 60 % en octubre.

– 2022: el 40 % de la difusión en febrero y el 60 % en septiembre.

La subvención concedida se abonará mediante transferencia bancaria en la cuenta corriente que indique la asociación o persona beneficiaria.

Artículo 11. Concurrencia con otras ayudas.

Las subvenciones concedidas conforme a las presentes bases serán compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran concederse.

IV. PROCEDIMIENTO

Artículo 12. Criterios de valoración.

Los criterios que se utilizarán para la valoración de los proyectos presentados o de la obra de arte serán los siguientes:

- Calidad artística del proyecto (40 puntos).
- Capacidad de adaptación del proyecto, flexibilidad y posibilidad de trabajar con la localidad que le corresponda (30 puntos).
- Presupuesto, plan de financiación y viabilidad económica del proyecto (15 puntos).
- Curriculum Vitae (15 puntos).

13. artikulua. Prozedura.

Gauzatzea eta proposamena:

Eskaerak kide anitzeko balioespen batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu, lehenengo baheketa bat egiteko. Batzorde mistoa honako hauek osatuko dute:

- Udalbiltzako udalgintzako 3 teknikari (bozkarik gabe).
- Udalbiltzako Kultura teknikaria.
- Udalbiltzako Lehendakaria.
- Batzorde eragileko 2 kide.
- Kultura munduko 3 aditu/eragile/kulturgile.
- Udalbiltzako idazkaria (bozkarik gabe).

Berdinketa kasuetan Udalbiltzako Lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

Eskaerak aztertuta, puntuazio altuena lortu duten proiektuak esleitutako udalei jakinaraziko zaizkie, egoki irizitako alegazioak aurkezteko.

Behin batzordeko eta udaletako iritzia jasota, behin behineko ebazpenaren proposamena argitaratu eta jakinaraziko zaie interesdunei, eta hamar eguneko epea emango zaie, egoki irizitako alegazioak aurkeztu ditzaten.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da. Bertan zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa, onuradunaren datuak eta esleitutako herriak. Diru-laguntza, hura jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie, eta, beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartu egingo balira, behin betiko zerrendetako diru-kopuruetan aldaketak gerta daitezke.

Adierazitako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko ebazpen horrek behin betiko izaera izango du.

Ebazpena:

Behin betiko ebazpen proposamena onetsi ondoren, lehendakariak prozedura ebatziko du arrazoitutako ebazpen baten bidez. Ebazpenean gainerako eskaerak gaitzetsi direla jakinaraziko da, beste eskaerarik balego, behintzat.

Ebazpen horretan zehaztuko da onuraduna eta esleitu zaizkion herriak.

Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, diru-laguntzen deialdia argitaratzen den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adieraziko du.

Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era zehaztuko dira.

V. DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

14. artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

a) Eskubideak.

Onuradunek, beren proiektua garatu edo gauzatzeko, garrario, ostatu, otordu eta dieta gastuak ordainduko dira, beka kopurutik kanpo.

Sortzaileek beren lanen ustiapenak, aurkezpenak eta emaldiak egin ahal izango dituzte beka deialdi honek proposatzen duen zirkuitu kulturaletik kanpo behin zirkuitua amaituta, hau da 2022ko irailetik aurrera. «Geuretik sortuak» zirkuitu honetatik kanpo egiten diren lanen ustiapenek edo egiten diren aurkezpenek edo emandiek, deialdi honetan zehaztutako diru kopuru («katxeta») berdina edo handiagoak izan ahal dira.

b) Betebeharrak.

Sormen lanak egiteko ondorengo epea izango dute onuradunek, diziplina artistiko bakoitzeko, beranduenez:

Artículo 13. Procedimiento.

Ejecución y propuesta:

Las solicitudes serán analizadas y evaluadas por un comité colegiado de valoración para realizar una primera criba. La Comisión Mixta estará compuesta por:

- 3 técnicos/as municipales de Udalbiltza (sin voto).
- Técnico/a de Cultura de Udalbiltza.
- Presidente de Udalbiltza.
- 2 miembros de la Comisión Ejecutiva.
- 3 expertos/agentes/culturistas del mundo de la cultura.
- Secretario/a de Udalbiltza (sin voto).

En caso de empate el Presidente de Udalbiltza tendrá voto de calidad.

Una vez analizadas las solicitudes, los proyectos que hayan obtenido mayor puntuación serán comunicados a los ayuntamientos adjudicatarios para que presenten las alegaciones que estimen oportunas.

Una vez recibidas las opiniones de la comisión y de los ayuntamientos, se publicará y notificará a los interesados la propuesta de resolución provisional, concediéndoles un plazo de diez días para que presenten las alegaciones que estimen oportunas.

Una vez analizadas las alegaciones presentadas, se elaborará una propuesta de resolución definitiva. En ella se especificará el importe de la subvención, los datos del beneficiario y las localidades adjudicadas. La subvención se concederá a todos los solicitantes que cumplan los requisitos para acceder a la misma, por lo que si se aceptaran las alegaciones presentadas contra la resolución de las listas provisionales, se podrán producir variaciones en las cantidades de las listas definitivas.

Si en el plazo señalado no se presentaran alegaciones, la resolución provisional tendrá carácter definitivo.

Resolución:

Aprobada la propuesta de resolución definitiva, el Presidente resolverá el procedimiento mediante resolución motivada. En la resolución se notificará la desestimación del resto de solicitudes, si las hubiera.

En dicha resolución se especificará el beneficiario y la localidad que le ha sido asignada.

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de tres meses a contar desde la fecha de publicación de la convocatoria de las subvenciones. Si en el plazo señalado no hubiera resolución, se declarará desestimada la solicitud presentada.

En la resolución se determinará el importe de la subvención y la forma de pago.

V. CONTROL DE LAS SUBVENCIONES

Artículo 14. Derechos y obligaciones de las personas beneficiarias.

a) Derechos.

A los beneficiarios, para el desarrollo o ejecución de su proyecto, se les abonarán los gastos de transporte, alojamiento, comidas y dietas, fuera del número de becas.

